

Zer erabaki?

Antton Izagirre

Duela bi urte, Gure Esku Dago mugimenduak hauspotuta giza kate erraldoian parte hartu genuenean, abagune berri baten aurrean geunden itxaropena piztu zen gure barnean. Pentsamendu arrazionala baino gehiago emozio indartsua zen baieztapen horretara bultzatzen gintuena. Bi urte geroago, emozio haiek erabakitzen hasteko aro berri batera sartu garela frogatzen duen ekimena gauzatuko dute, igandean, Gipuzkoako milaka herritarrek.

Joan zen igandean, Zubietan eraiki nahi duten erraustegiaren aurkako beste giza katean parte hartu genuenean Donostian, antzeko emozioak piztu ziren geure bai-

tan. Milaka batzuk izan ginen Onkologikoa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza eskuz esku lotuta, erraustegia ekiditeko arrazoiz jantzi eta olatu erraldoi baten lehen urratsa eman genuen uste sendoa izan genuenok.

Ondo dakigu bi auziak ez direla alderagarriak. Estatu independentearen alde jarzteak badu asko emoziotik, baina, pentsamenduak, herri libre eta justuagoaren alde jarduteak, eraikitzean parte izatearen ideologiak herritarrak mugiaraziko ditu beren botoa ematera.

Erraustegiarenak asko du ideologiatik, garbi dago eredu sozialen arteko talka erakusten duela, ingurumena eta ekonomia

arrazoi indartsuak direla, baina Gipuzkoa plazan, erraustegiaren eraginez minbiziak erasandakoen testigantzak jasotzean edo gure haur eta gazteengan ondorengo urteetan izan dezakeen eragina aditzera ematen digutenean, emozioek borbor egiten dute eta harrapatzen gaituzte, auzia geure eginez.

Eta Laboaren kanta datorkigu: «Maite ditut maite gure bazterrak lanbroak izkutatzen dizkidanean, zer izkutatzen duen ez didanean ikusten uzten, orduan hasten bainaiz ikusitakoa... nere barnean bizten diren bazter miresgarriak ikusten».

Orduan jabetzen edo amesten hasten gara erraustegia ez dela egingo. •

«Tourist Go Home, Refugees Welcome»

Andoni Egia

Donostia betidanik izan da hiri turistikoa, iruditegi kolektiboaren eraikuntzan hain garrantzitsua izan den elementua. Hor daukagu Maria Cristina erregina eta *belle époque* donostiarra. Egun baina, mundu sistemaren zentroan kokatzen diren hiriek, mundu mailako egitura produktiboan balio gehien duten prozesu produktiboak bereganatzeko lehia bizia dute, eta lehian irabazteko, nazioarteko kapital, merkantzia eta turista fluxuak erakarri behar dituzte. Periferiara balio gutxiko prozesu produktiboak deslokalizatu eta lehen-gaiak ebasten ditugun bitartean, askotan gerraren bidez, askotan errefuxiatuak eraginez.

Horrela, zentroko hiriok produkzioaren espazio izatetik –fabrikak zeuden leku– espazio produktiboak izatera pasa dira –hiria bera da ekoizten dena–, hiria bera baita faktore produktibo nagusienetakoa. Hau baina, ez da modu natural batean eman, elementu intaginbleak harrapatu, kodifikatu, eta termino merkantiletan deskodifikatu ahal izateko, dispositibo fisiko eta narratibo zehatz batzuk behar dira: Tabakalera, Monpaseko Hotela, Zinemaldia, Jazzaldia, DSS2016...

Donostiako eredu turistikoa oinarrian saltzen duena hiru gauza dira: hiria eta bere paisaia, kultura eta gastronomia. Hiru elementu hauek Donostiako biztanleok gure eguneroko bizitza arruntean sortzen ditugun esternalitateak dira, hau da, elkar

bizitza ematen den espazioa: hiria; elkar bizitzeko modua: kultura; eta kultura eta ingurunearen batura: gastronomia. Industria turistikoa, beraz, komunean sortzen dugun hori turistei saltzeko produktueta eraldatzean oinarritzen da, industria siderurgikoa, minerala, burdina erabilgarri bihurtzean oinarritzen den bezala.

Gauzak horrela, izugarri harritzen nau turismoaren inguruan diskurtso kritikoak eraikitzeak daukagun ezintasunak. Diskurtso neoliberalenetan enpresa askatasuna defenditzeko erabiltzen den diskurtsoa, propio egin eta artikulua izenburua zeraman pankarta bezalakoak kritikatzten ditugu, publikoki, lotsarik gabe, eta erreplikak jasotzeko beldur gutxirekin. •